

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabideak funtsezkoak dira gure enpresa aurrera eramateko, gure giza baliabide aktibo nagusiak beste enpresekin harremanak eta gure langileen esperientzia eta formakuntza emateko gaitasuna dira. Horretaz gain, desfibrilagailuen mantenua egiteko trebezia.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak kontuan hartuz, hasiera batean telefonoarekin eta internet bidez konponduko ginen. Telefono bidez gure bezeroak gurekin harremanetan jartzeko aukera edukiko dute. Internet bidez, gure negozioa zabaldu eta gurekin harremanetan jartzea ere posible izango da, horretarako ordenagailua beharko genuke. Horretaz gain, Oñatiko Udalak erraztutako lokal bat erabiliko genuke hasiera batean.

Baliabide intelektualei dagokionez, hauek, enpresak aurrera egin hala garatzen joango dira. Gure zerbitzuak patenteak eta egile- eskubideak edukiko ditu beste inork kopia ez dezan. Gure enpresaren marka DesfibriMAX izango da.

Azkenik, finantza- baliabideei dagokionez, gure aurrezkiak izango dira nagusiak. Hasiera batean, denbora bat igaro beharko da guk gure etekinak lortu arte. Kapitala txikia denez, gure ingurukoen (familia, lagunak...) laguntza ere eskatuko dugu. Bestalde, kapitala handitzeko helburuaz, Eusko Jaurlaritzara (SPRI) jo dezakegu gure ideia proposatuz. Horretaz gain, Oñatiko Udalak ekintzaileei ematen dizkioten diru- laguntzez ere balia gaitzke.